


Gure bezeroak hainbat kultura eta adin desberdinetako haurrak dira. Adin tarte 2 urtetik 16 urtera izango da, 16 urtetik gorakoek ez dutelako gai honetan interesik izango. 2 urtetik 12-13 urte bitarteko haurrak kultura aniztasunaren inguruan gaur egun gizartean dagoen hutsuneaz ez dira ohartzen, horregatik familiak izango dira kultutekako zerbitzuaz disfrutatzeko erabakia hartuko dutenak. Gainera, pentsamendu inklusiboa duten familietako haurrentzat egokia dela uste dugu. Horrez gain, haur txikien lasaitasuna eta erosotasuna kontuan izanik, 2 eta 10 urte bitarteko haurrak gurasoekin sartzeko aukera izango dute. Beraz, gure segmentu nagusia inmigranteak dira, Beheko grafiko hauetan ikus daiteke urte desberdinerako imigrazioa Euskadin. Datu hauek Eustateketik hartuta daude.

Azken urte hauetan, zehazki 2018tik 2021erako Euskadiko inmigrazioaren datuak aztertu ditugu eta hainbat ondorioetara heldu gara: 2018an 46.982 inmigrazio egon ziren, eta 2019an berriz, igoera nabarmena egon zen, 52.306 pertsona. Aldiz, 2020an beherakada nabarmenagoa egon zen, 35.221 pertsona eta 2021 berriro igoera bat eman zen, 39.427 pertsona.

IMIGRAZIOA EUSKADIN



Datuen arabera, 2004an 59.166 etorkin etorri ziren Euskal Herrira; Colombiatik 9.044 pertsona (etorkinen %15'29), Ecuadorretik 7.038 pertsona (etorkinen %11'9), Marokotik 5.505 pertsona (etorkinen %9'3), Portugaletik 4.607 pertsona (etorkinen %7'79), Rumaniatik 2.652 pertsona (etorkinen %4'48), Argentinatik 2.329 pertsona (etorkinen %3'94) eta beste herrialde batzuetatik 27.991 pertsona (etorkinen %47'31).

2005ean, berriz, 72.767 etorkin etorri ziren Euskal Herrira bizitzera; Colombiatik 10.194 pertsona (etorkinen %14'01), Ecuadorretik 7.607 pertsona (etorkinen %10'45), Marokotik 6.719 pertsona (etorkinen %9'23), Portugaletik 5.302 pertsona (etorkinen %7'29), Rumaniatik 4.245 pertsona (etorkinen %5'83), Argentinatik 2.816 pertsona (etorkinen %3'87) eta beste herrialde batzuetatik 35.884 pertsona (etorkinen %49'31).

Gainera, ikus dezakegu, Bizkaira 36.204 pertsona etorri zirela; Europar Batasunetik 8.329 pertsona, Afrikatik 5.891 pertsona, Amerikatik 19.869 pertsona, Asiatik 2.044 pertsona eta Oceaniatik 71 pertsona. Eta gainera, grafikoak erakusten du, Bizkaiara, Europar Batasunetik 4.569 gizon eta 3.760 emakume, Afrikatik 4.295 gizon eta 1.596 emakume, Amerikatik 7.889 gizon eta 11.980 emakume, Asiatik 1.159 gizon eta 885 emakume eta Oceaniatik 54 gizon eta 17 emakume etorri ziren. Datu hauek 2018 koak dira.

Beraz, esan dezakegu guztira Euskal Herrira 37.317 gizon etorri direla eta 35.450 emakume.

IMIGRAZIOA EUSKADIN

